

BURUKETAK

Gozo-denda batean 1.600 pastel egin behar dituzte. Gaur txokolatezko 256 pastel, kremazko 976 pastel eta marrubizko 345 pastel egin dituzte.

- Lortu dute hainbeste pastel egitea? BAI EZ
- Zenbat pastel gehiago egin behar dituzte 1.600 izateko?
pastel gehiago egin behar dituzte.



Xabik 2 kamiseta erosi ditu. Bakoitzak 39€ balio du. Lehen 150€ bazituen, orain zenbat euro ditu?

€ ditu orain.



Itziarrek 4.500 hitzeko testua idatzi behar du. Goizean 2.456 hitz idatzi ditu eta arratsaldean beste 1.867 hitz. Zenbat hitz falta zaizkio testua bukatzeko?

hitz falta zaizkio testua bukatzeko.



Antzokian 3.762 pertsona sartzen dira. Guztira 2.519 sarrera saldu dituzte? Zenbat eserleku geratu dira libre?

eserleku geratu dira libre.

